

XI. CAF-Elhuyar sariak

Rakel Lopez

Elhuyar Fundazioa

CAF-Elhuyar sarien XI. edizioa martxan dago. Lanak aurkezteko epea abenduaren 15ean amaitzen da, eta, beraz, zientzia-dibulgatzaileak garaiz dabilta oraindik sariketara aurkezteko. Hiru sari nagusi eta gazteentzako sari berezi bat egongo dira jokoan, guztira 2.100 ? .

URTERO LEGEZ, ETA BEASAINGO CAF ENPRE-SAREN BABESARI ESKER, martxan daude CAF-Elhuyar sariak. Euskarazko zientzia-dibulgazioa sustatzeko helburuarekin sortu ziren sariok 1994. urtean, eta, ordutik, dozenaka zientzialarik eta idazlek beren lanak argitaratzeko aukera aparta izan dute CAF-Elhuyar sariei esker.

Aurtengo edizioan hiru sari nagusi eta gazteentzako sari berezi bat egongo dira jokoan. Guztira 2.100 ? banatuko dira: lehenengo saria 1.000 ? -koa izango da; bigarrena 500 ? -koa; eta 300 ? eskuratuko ditu bai hirugarren saria jasotzen duenak eta bai gazteentzako sari berezia irabazten duenak.



X. CAF-Elhuyar sarien irabazleak.

Euskararen eta zientziaren alorrean eskarmentu handia duten adituek osatuko dute epaimahaia, eta 2005eko urtarillaren amaieran emango dituzte ezagutzera aurtengo irabazleen izenak. Martxoan sari-banaketa egingo da, eta lan irabazleak *Elhuyar Zientzia eta Teknika* aldizkarian eta www.zientzia.net web gunean argitaratuko dira.

Joan den urteko edizioan, guztira 21 dibulgazio-artikulu aurkeztu ziren sariketara. Lehenengo saria Oihana Izagirre eta Oihane Lakar biologo gazteek eskuratu zuten *Meandroetako mina* artikuluarekin. Bigarren saria, berriz, Karmele eta Montxo López de Ipiñak, eta Aitzol Ezeizak lortu zuten *Replikantearen jazz arima* lanari esker. Hirugarren saria Aitziber Mendiguren, Luis Callado eta Joseba Pinedarentzako izan zen, *Kafeina: behar bihur daitekeen plazera* lanarengatik.

Azkenik, gazteentzako sari berezia Gorka Azkune Galparsoro gazteak eskuratu zuen *Izarren energiaren bila* artikuluari esker. Lan horiek, gainerako edizioetako lan irabazleak eta aurtengo edizioaren oinarriak www.zientzia.net edota www.elhuyar.org web guneetan eskura daitezke.

Norteko Ferrokarrilla berriz ere martxan

Urrian abiatu zen Norteko Ferrokarrilla irratsaioaren denboraldi berria. Aurtun asteazkenetan emitituko da, gaueko hamarretan, Euskadi Irratian. Guillermo Roak eta Nagore Rementeriak zuzenduko dute irratsaioa, eta, zientziari buruz mintzatuko dira Euskal Herriko ikertzaile eta adituekin. [□](#)

